

Ariketa hauek Ikasbileko 1973147 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-46 Crowdfunding-a

Mailak: B2-C1

Funtzioak: egitasmo baten proposamena idatzi, bestea konbentzitzen saiatu, azalpenak eman

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (crowdfunding, antolatu, ordaindu, proiektu, babestu...)

Azken ekintza: Abian jarri nahi duzuen crowdfunding egitasmo baten berri eman.

EGITEKOAK

1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

Azken ekintzari zuzendutako jarduera: Taldean hasiko duten crowdfunding egitasmo baterako zirriborroa prestatu behar dute. Ikasgelan, bakoitzak berea aurkeztuko du zertan den bere proposamena. Jarduera honetarako, lagungarria izan dakieke Interneten egitasmoak kontsultatu eta ereduak aztertzea. Esaterako:

<http://karena.eu/proiektua/euskal-herriko-mitologiaren-jainkoak-eta-jeinuak>

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Crowdfunding-ari buruz hitz egiteko erabili dituzten esaldiak osatzeko aukera egin.

1- Entzun aurretik

1.2 Crowdfunding-a



Elkarrizketan aipatuko duten gaiari hurbilpena egiteko, ikasleek crowdfunding-ari buruz dakitena komentatuko diote elkarrizketari. Ondoren, crowdfunding-a zer den azaltzen duen testua irakurri eta bertan dituzten hitzez osatuko dute.

Zuzenketa:

ekarpen (1) proiektu(2) finantzazio(3) sare(4) Internet (5) dirua (6) baliabideak(7) Ordaina(8)

Crowdfundinga, proiektuak finantzatu eta martxan jarri ahal izateko gizabanakoen konpromisoa

Crowdfundinga banakako _____ en bitartez _____ zehatzen _____ zuzena egitea da. Beste izen batzuk ere hartzen ditu; hala nola: crowd financing, equity crowdfunding, edo hyper funding; eta bere oinarrian dagoena da _____ bat osatzen duten norbanakoen esfortzu kolektiboa, normalean _____ bidez aurrera eramaten dena, beste pertsona edota kolektibo batzuen proiektuen alde _____ edo bestelako _____ lortzeko.


Garai batean donazioak egiten ziren, baina gaur egun sare sozialak direla, online komunitateak direla eta ordainketa txikiak egiteko teknologiei esker, interesa duten pertsona-talde baten donazioak jasotzea asko erraztu da eta modu seguruagoan egin daiteke, gainera.

Oso alor aktiboa da, finantzaketa modu alternatiboak bilatu behar izateak azken urteotan bultzada berezia eman dio eta. Eta finantzazio bilaketa hori "giza" izaera duten plataformek bideratzen dute. Ekarpene horien truke, emailak aurrez zehaztutako _____ jasoko du jenerotan.

[Ikasbil](http://ikasbil)

2- Entzun bitartean

2.1 Aukeratu egokia



Aaudio-pasartea entzun aurretik galderak irakurri eta entzundakoaren arabera, erantzun egokia aukeratu dezatela. Ondoren, partekatu dezatela egindakoa ikaskidearekin.

Jon eta Jone asteburuko plana errepikatzeko prest daude baina arazo txiki bat dute. Zein?

- Joneren senar ohia etxera sarritan joaten omen zaio bisitan eta ez du nahi Jon bertan topatzea
- Joneren senar ohia laster jango da kanpora eta Jonek semeaz arduratu beharko du astebururo
- Joneren semea ez da ondo moldatzen Jonekin eta ezinezkoa izango zaie elkarrekin egotea

Joneri kulpa sentsazioa jarri zaiola entzun duzu. Zer dela eta?

- Jonekin denbora gehiago igarotzeko Niko karga izan daitekeelako
- Jonekin ateratzen hasi denetik ez delako lehen beste egoten Nikorekin
- Ez diolako oraindik esan Nikori Jonekin ateratzen hasi dela

Zertarako da Jonek Joni pasa nahi dion crowdfundingeko lotura?

- Mendi espedizioetan segurtasun neurriak azalduko duen bideo baterako
- Atzerriko suhiltzaileekiko elkartasuna adieraziko duen mendi martxa bat antolatzeko
- Suhiltzaileen espedizio bat finantzatzeko

Zer iruditu zaio Joni egitasmo horretan parte hartzea?

- Hasieran ez du ondo hartu, baina Jonek konbentzitu du eta azkenean parte hartuko du
- Ez omen du euro bat bera ere emango proiekturako
- Proiektua aztertu eta erabakiko du zer egin.

Ironiaz beraiek ere crowdfundinga hasiko dutela komentatu dute. Zein izango da egitasmoa?

- Eskiatzera joatea
- Espedizio bat egitea
- Zaborra biltzeko sistema berri bat finantzatzea

2.2 Crowdfundingari buruz



Bigarren aldiz entzunda, ikasleek idatzi behar dute Jon zergatik dagoen crowdfundingaren aurka. Ikaskidearekin alderatu ondoren, berarekin ados dauden ala ez azalduko dute.

“azkenean crowdfundingaren eskuetan utziko da beste batzuek egin eta babestu beharko luketena.”

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Egitasmoa




Crowdfunding proiektua prestatzeko tartea hartuko dute. Horretarako:

- Partekatu dezatela ikasgelakoekin  ariketan idatzi duten crowdfundingerako proposamena.

2. Denenak entzun ondoren, erabaki zein den egokiena
3. Azkenik, prestatu testu bat interneteko KARENA crowdfunding plataforman argiatratzeko

Testua idazteko laguntza behar izanez gero, irakurri dezatela plataforma horretan argitaratu zuten beste egitasmo hau:



Euskal Herriko mitologiaren jainkoak eta jainuak

Gasteizko Amaroa Kultur Elkarteko kideak gara eta elkarte hau Euskal Mitologia zabaltzeko asmoarekin jaio zen. Helburu hau jomuga izanda webgune bat sortu genuen (www.amaroa.com) eta hainbat jardun aurrera eramaten ditugu (hitzaldi-elezahar kontaketak, mitologia jaiak umeentzat dantza eta abestiekin, e.a.)

Urte pare bat dela Euskal Herriko pertsonaia mitologikoen inguruan Arabako Aldundiak liburuxka eta DVD bat argitaratu zigun, baina liburuxka amaitu zaigu eta, oraingoan, autoeditatu egin nahi genuke.

Liburuxkaren izenburua EUSKAL HERRIKO MITOLOGIAREN JAINKO ETA JEINUAK da. Bertan, izenburuak dioen bezala, Euskal Herriko mitologiaren jainko eta jainu nagusien bilduma bat aurkezten da. Beraien ezaugarriak azaltzen dira eta pertsonaia bakoitzaren inguruko elezahar bat kontatzen da. Hau guztia laguntzeko, komiki moduko marrazkiak argazkiekin nahasten dituen irudi ugari aurki daitezke, guztia koloretan. Euskaraz eta gazteleraz dago, eta oso erraz irakurtzeko moduan idatzita.

Autoedizio hau aurrera atera ahal izateko laguntza eske gatoz, proiektuaren zati bat ordaintzeko. Proiektu hau burutzeko ematen diguzun laguntza Euskal Mitologiaren zabalkuntzan lagungarri izango dela ziur egon.

Eskerrik beroenak aldeaz aurretik eta kontuan izan "Izena duenak izana duela!!!"

Aukeratu molde egokiak crowdfunding-ari buruz hitz egiteko erabili diren esaldiak osatzeko

Suhiltzaileak. espedizio bat antolatzen ari dira eta

- **crowdfunding-a hasi dute**
- crowdfunding-arekin hasi dute
- crowdfunding-a hasi dira

Dirua bildu nahi dute Andeetan egingo duten

- **mendi espedizio baterako**
- mendi espedizio batean
- mendi espedizio batekin

Broma bat izango balitz grazia izango luke, baina ez duzu benetan pentsatuko zure lagun horri bere _____ lagunduko diodanik, ezta?

- **espedizioa ordaintzen**
- espedizioa ordaintzeko
- espedizioa ordaintzera

Pasa nahi duzuna baina ez dut

- **euro bakarra jarriko.**
- euroa bakarrik jarriko
- euro bat jarriko

Bakoitzak bere diruarekin nahi duena

- **babestu dezake**
- babestu daiteke
- babestu ditzake

Lotsa apur bat ere behar da, azkenean **crowdfundingaren eskuetan** utziko da beste batzuek egin eta babestu beharko luketena.

- **crowdfundingaren eskuetan**
- crowdfundingaren eskuetara
- crowdfundingaren eskuetatik

Argi dago ez zarela ia akordatzen gaztetan zenbat errifa eta zenbat zabor **erosi behar izaten genizun**

- **erosi behar izaten genizun**
- erosi behar genizun
- erosi beharko genizun

TRANSKRIPZIOA

W-JONE Jon, asteburuan primeran pasa dut.

W-JON Baita nik ere.

W-JONE Esan nahi nizun...besterik gabe.

W-JON: Ea errepikatzen dugun.

W-JONE: Ez dakit ba noiz... Oskar Txilera joaten denean akabo Nikorik gabeko asteburuak.

W-JON: Moldatuko gara... geratuko gara gero?

W-JONE: Niko ikastolatik jaso aurretik kafea nahi baduzu?

JON: Eta noiz abiatu behar du zure ex-ak?

JONE: Ba oraindik ez daki ziur baina hilabete barru edo horrelako zerbait.

JON: Bueno, ba ordura arte semearekin egon nahiko du ezta? Horrela zu apur bat libratu zintezke.

JONE: Joder, ... Horrela esanda... badirudi ez dudala Nikorekin egon nahi... eskakeatu nahi dudala.

JON: Bueno Jone ez hasi orain amatxoarena egiten, zu ez zara lerda horietakoa.

JONE: Ia, baina ez dakit, kulpa modukoa sentitzen dut holakoetan.

JON: Zer kulpa? Katekista bat zarela deskubritu behar al dugu orain? Besterik gabe, zuretzako denbora eduki nahi izateak ez zaitu ama-munstro bat bilakatzen.

JONE: Ia badakit, gainera Oskarrek eskatu dit joan aurretik ea utziko diodan ahalik eta denbora gehien Nikorekin egoten.

JON: Ikusten? Zure ex-ak nahiko tipo normala dirudi.

JONE: Nik ez dut inoiz Ex normalik izan.

JONE Lotura bat pasa behar dizut.

JON Lotura bat?

JONE Bai, Gimnasioko suhiltzaile batek pasa dit. Espedizio bat antolatzen ari dira eta Crowdfunding-a hasi dute.

JON: Crowdfunding-a zertarako?

JONE: Esan dizut, mendi espedizio baterako...

JON: Hara! Beren espedizio kapritxoa ordaintzeko crowdfunding-a? Suhiltzaile horrek mangeraz aparte, bi potro ditu bai.

JONE: Zer diozu Jon?

JON: Broma bat izango balitz grazia izango luke, baina ez duzu benetan pentsatuko zure lagun horri bere espedizioa ordaintzen lagunduko diodanik ezta?

JONE: Ez da espediziorako edo horretarako bakarrik behintzat, ez. Bertoko suhiltzaileentzat ez dakit zer proiektu duten.

JON Ez dakizu.

JONE: Bueno horregatik esan dizut lotura pasako nizula.

JON. Pasa nahi duzuna baina ez dut euro bakarra jarriko. Joder crowdfundingarekin.

JONE Nahi duzuna egin baina ez hasi orain marmarrean.

JON: Aizu hobe izango da loturarik ez pasatzea, ostia txarrean jarriko naizelako benetan.

JONE. Baina bizitza osoa pasa duzu eta zuk zure mobiden txapa eta kamisetak saltzen. Eta orain crowdfunding-aren kontra.

JON: Joder Jone, baina eske crowdfundingarena ia pasada bat da. Disko bat atera nahi duten 18 urteko gazte batzuk, bada bale. Baina asuntua (kontua) desfasatu egin da.

JONE: Bueno, aizu ez dizut pasako eta kito.

JON: Gero klaro, artista ezagunek ere Los Angelesera grabatzera joateko kapritxoa dute eta crowdfundinga egiten hasten dira, edo pelikula bat egiteko eta.

JONE: Esan dizut ez dizudala bidaliko.

JON: Eta ia "el colmo", mendi espedizio batetarako.

JONE: Aizu bakoitzak bere diruarekin nahi duena babestu dezake.

JON: Ez, lotsa apur bat ere behar da, azkenean crowdfundingaren eskuetan utziko da beste batzuek egin eta babestu beharko luketena. Pasada hutsa bihurtzen ari da.

JONE: Argi dago gaur ere mitina tokatzen dela.

JONE. Aizu ba Niko bere aitarekin dagoen tarte luze horietako batean planen bat egin genezake? Eskiatzera edo...Aspaldi ez naiz joan.

JON: Bai, crowdfunding bat ireki dezakegu horretarako ere.

JONE: Bufff Argi dago ez zarela ia akordatzen zenbat errifa eta zenbat zabor erosi behar izaten genizun zuri.

JON: Hori beste kontu bat zen.

JONE: Ia klaro (jakina) hori ez da crowdfunding-a, hori beste kontu bat da.